


1991




Desertuko ur fosilaren berdea

Saudi Arabiako Wadi As-Sirhan arroa berdetu eta berdetu ari da azken 25 urteotan. Irudi hauek satellite bidez hartutako kolore faltsuko irudiak dira, infragorrian hartutakoak. Berdez ikusten dena landaredia da. Desertuaren erdian ugaritzen ari diren zirkulu berdeak nekazaritza-lurrak dira, kilometroko diametroa duten soroak; ureztatze-sistemagatik

dute itxura hori. Eta ura lurpetik dator. Ur 'fosila' da, azken glaziazioan bete ziren lurpeko akuiferoetan dagoena. 20.000 urte beranduago, arabiarrek ur hori ateratzen ari dira, kilometrorra irits daitekeen sakoneratik. Inork ez daki zenbat ur dagoen, baina hidrologoek kalkulatu dute 50 bat urtez izango dela errentagarri ur hori punpatzea. ARG.: © NASA/GSFC



2000



2012